

- **Zer berri:** Etxebizitza eskariaren berri jasoko da inkesta bidez.
- **Entzutekuak:** Azaroan hasiko da neska eta mutilentzako Futbol Eskola

soraluzeko
hamabostekaria **229.** alea
2010eko urriaren 15ean

pil-pilean



IV. Udako Argazki Lehiaketako argazkiak

Elizpe

Hortz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Implanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (hauren arretarako hortz programa)

Elizburu 3 behea, Soralueze • Tel. 943 75 25 67



FRESATZEKO ETA MANDRINATZEKO MAKINAK FRESADORAS-MANDRINADORAS



SORALUCE

Soraluce S. Coop.
Barrio Osintxu s/n
20570 Bergara
Gipuzkoa

Tel. +34 943 76 90 76
Fax: +34 943 76 51 28
soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com



AINARA OSORO



LOREA DE CASTRO

ANNUS HORRIBILIS

Txor, txor, txor...

“Annus horribilis” izan zen 2008a. Bat-batean enpresek ezin zituzten zorrak ordaindu, bankuek porrot egin zuten eta krisi hitza nonahi azaltzen hasi zen. Momentu hartan ez zuen larria ematen, EEBBetako istiluak urrun geratzen ziren, baina ekonomia globalizatuko mundu batean, laster ziran arazoak ate joka.

Nazioarteko politikari eta ekonomista garrantzitsuenek une historikoa izango zela ziurtatu zuten, behin betiko ekonomia bideratuko omen zuen horrelakorik berriz ez gertatzeko. Zalantza bat zen airean baina: neurri horrek nahiko izango ziren ala sistemaren funtsa zen ustelduta zegoena?

Ordudik, tira-bira asko izan dira, langabezi tasak gero eta okerrago, agintariakelkarrierrua botatzen... Denbora aurrera joan da eta krisia zirku handi bat bihurtu da, denbora-pasa ikusgarri eta huts bat. Diskurtso zantzu, lehiaketa politiko eta erreforma polemikoak burutzeko aitzakia. Krisia dago eta izorrari. Zergatik? Zer da ba krisia? Fenomeno natural bat? Badakigu zerk sortu duen, jendearen (danon) handikeriak, diru nahiak. Batez ere, negozio arriskutsu eta erraldoiak egiteko boterea zutenen burugabekeriak eta berekoikeriak. Gutxi batzuek izugarrizko irabaziak lortu zituzten tratu zikinekin, eta orain horren kalteak danok pairatzen ditugu. Gainera, aparatu mediatiakoak ezkutatu eta justifikatu egiten ditu. Amnesia orokorra zabaltzen saiatzen ari dira, grebalarien biolentziaz hitz egiten, imigrazioaren gaia ekarritz, gure otzantasuna eskatuz. Dena gai nagusia alde batera uzteko: sistema politiko-ekonomiko honen ezegokitasuna.

Goguan hartzeko

“Zein da orotako aberatsena? Bere dohaiaz gogobetetzen dena (pozik dagoena).”
Gotzon Garate, euskal atsotitza

Krisia zirku handi bat bihurtu da, denbora-pasa ikusgarri eta huts bat.

Ainara Osoro

Mass-mediak egunero bonbardatzen gaituzte, guk zerbait ulertzen dugu?

Lorea de Castro

Aupa Ainar!

Gai korapilatsu batekin zatoz oraingoan! Egia esateko, ez da erreza krisi honen inguruan daukagun informazio (eta desinformazio) dana ordenatu eta ulertzea. Mass-mediak egunero bonbardatzen gaituzte ehunka datu, analisi eta portzentaiekin, baina guk zerbait ulertzen al dugu?

Danok daukagu iritziren bat honen inguruan: zeinen kulpak den, nondik etorri den “krak”a, zela konpondu... baina zeinek dauka arrazoa? Espertoak be ez dira ados jartzen eta!

Komunikabideetan eta kalean oihartzun gehien daukan datuetako bat langabezi tasa da. Gero eta jende gehiago dago lan bare, baina “maila baxuko” lanetan lanpostuak libre dare. Gaur egun ia inork ez du nahi egunean zortzi ordu pasatzea marrubiak batzen, denok nahi dugu lan eroso bat. Baina lanpostu horri uko egiten dioten berdinak dira gero etorkinak kritikatzeko dituztenak, bertakoei lana kentzen dietela esanaz.

Frantzia gertatzen dabilena aipatzekoa da. Ezaguna da fenomeno hau psikologia sozialean. Egoera zail baten aurrean estrategia ona izan liteke “etsai” bat topatzea, jendearen atentzioa desbideratzeko eta gizarte bat indartzeko eta kanpoko talde/etsai horren kontra joateko; Sarkozyk ijito errumaniarrak bihurtu ditu Frantziar Errepublikaren etsai. Hitler ere hala hasi zen judutarrekin eta denok dakigu zela amaitu zuen.

Kuriositate bat: japonieraz “krisi” hitza bi karakterekin idazten da; lehenengoak “arriskua” esan nahi du; bigarrenak, aldiz, “aukera” edo “egokiera”. Hartu dezagun, beraz, krisi arriskutsu hau mundua hobetzeko aukera bezala...



GUTUNAK

Alde zaharreko lanak bukatuta

Herriarguztiok ikus dezakegu Plaza Zaharreko eta Etxaburueta kaleko urbanizazio lanak bukatu direla. Lan hauek Izartu II plangintzaren bitartez burutu dira 350.000€-ko kostua izan dutelarik. Ondorioz Izartu II plangintza amaitutzat ematen da.

Adierazi nahi dugu lan hauek egitearen aurka azaldu zela Ezker Abertzalea aurreko legealdian. Gure taldearen aldetik jakinarazi nahi dugu bai Etxaburueta kalea eta baita Plaza Zaharra oso ondo gelditu direla, begi bistakoa da. Dena dela, ez dugu ulertzen zergatik Udal Gobernuak Plaza Barrian zegoen lau buruko farola eta Plaza Zaharreko bankuak kendu dituen. Hirigintzako batzordean jakinarazi genien ez zegoela honek kentzeko beharrik, beraiek ordea kasurik ere ez. Legealdi guztian egin duten bezala.

Zergatik ez?

Urriaren 6an izandako Udalbatzarrean eguneko gai zerrendan, konkretuki, seigarren puntuan errepresioaren aurkako mozioa aurkeztu zuten ezker abertzaleko kideek. Gure taldeak, puntuari hasiera eman aurretik, aditzera eman zuen mozio alternatibo bat geneukala. Ezker abertzalearen mozioa eztabaidatu eta bozkatu ondoren gure mozioaren urgutzia bozkatu zen. Bozkatzearen emaitza ondorengoa izan zen: 6 boto alde 5 aurka. Mozioa eztabaidatu eta bozkatzea onartu zelarik. Aurka bozkatu

Bereziki komentatu nahi dugu Plaza Zaharreko bankuak kentzearena. Ipin direnak txikiagoak, deserosoagoak eta dituzten ertzekin umeentzat arriskutsuagoak dira. Zer behar zegoen besteak kentzeko? Dirua soberan daukagu udaletxean? Galdera hauek herritarrek ere egiten ditzuzte. Azkenik alde zaharrari dagokionez pendiente gelditzen den proiektua Erregetzeko aparkalekuarena da. Ezker Abertzaleak aparkaleku publikoen aldeko apostua egin zuen hauteskunde kanpaina, legealdia bukatzean dagoen honetan denok dakigu zer egin ez duten. Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak. Informazioa gehiago www.soraluzepnv.com.

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

zutenak Ezker Abertzalea eta Eusko Alkartasuna izan ziren. Nola daiteke demokrazia, herri partaidetza bezalako hitzak ahotan dituztenen aldetik aurka bozkatzea? Zergatik ez dute nahi gure mozioa eztabaidatu eta bozkatzea? Hau alda beraientzat jarrera demokratikoa mantentzea udalean? Benetan jarrera ulertezina Eusko Alkartasunaren aldetik! Nola aldatu den EAren jarrera aurreko legealditik ona. Herriar bakoitzak atera ditzala bere ondorioak. Informazioa gehiago www.soraluzepnv.com.

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

Farolak eta errepideak

Paul Krugman nobel sariduna ez balitz sinatzailea, honako hau irakurle askok ez zuen sinetsiko: "AEBetan barrena hasi dira argiak itzaltzen, hitzez hitz. Colorado Springs hiria famatu egin da nola edo hala dirua aurreztu nahian kaleko hiru farolatik bat itzali duelako, baina antzekoak ari dira gertatzen herrialde osoan, Filadelfiatik hasita Fresnoraino. Bere garaian mundua harriarazi zuen herrial-

dea garraibide aitzindarietan inbertituz, Euri-rieko kanalean bezala autopista sarean, orain errepideetako zorua harrotzen hasi da: estatu batzuetan gobernuak ari dira errepideak suntsitzen mantenenidua pagatu ezin dutelako, asfaltoa zena hartxintzar bihurtuz".

**Argia. 2224. zk.
Egoitz Unamuno**

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari-
esanen eta iritzien erantzunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

((ENTZUTEKUAK))

bittartetik



Gurutze Ariznabarreta
Garbi dago!

Ume-umetatik guraso eta hezitzaileek irakasten diguten oinarrizko ezagutza da ingurua ez zikintzea edota zikinduz gero, garbitzea. Denborarekin ikasten dugu ingurua zainduz bizitzeko toki garbi, seguru eta atseginago bat lortzen dugula. Konturatzen gara zikinkeriak kutsatu egiten duela, bazterrak desitxuratu eta ingurugiro desatsegin bat sortzen duela. Orduan kontzientzia hartzen dugu gure etxea zaintzen dugun bezala gure herria zaintzekoa. Orduan, jada, ez daukagu ama atzetik ibili beharrik “ez bota paperik lurrera” esanez. Jada, ez gara umeak, elkar errespetatzen ikasi dugu, zaborrak behar den tokian eta behar den bezala botatzen. Eta hori ulertzen dugun momentuan irakasle bihurtzen gara, gure ondorengoendako eredurik onena. Bizitzako zein unetan zaude zu? Zorionak gizarte eredugarri eta garbi horren aldeko aukera egina baduzu jada. Eta, oraindik ere, zigarrokinak, txikleak, paperak, latak, lurrera, errekarra, mendira botatzen jarraitzen baduzu, gonbidatzen zaitut jarrera horiek aldatzera. Danon artean bizitzeko mundutxo atseginago bat lortu dezakegulako, aurrera lagun, txukun-txukun!

Mikel Calvo, Sorako Futbol Eskolako entrenatzailea

Zelai berria inauguratu bezain pronto hasiko dira Futbol Eskolako entrenamenduak. Mikel Calvorena izango da entrenamenduen ardura. Hezkuntza fisikoan lizentziatua da bera eta orain Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak ikasten dihardu Gasteizen.

Zegaittik sortu dozue Futbol Eskolia?

Futbol Eskolia oso aproposa da gaztetatik futbolakiko zaletasuna lantzeko. Sorako arduradunak honen biharra zeguala ikusi eta futbol zelai berrixakin batera, proiektu berri bat sortu nahi izan dabe herrixan. Eskolia 8-10 urte arteko haurreri zuzenduta dago. Adin horrekin ezin zebe lehengo zelai kaxkarrian entrenatu, ezta taldea sortu be.

Zer da bertan erakutsiko dozuena?

Gure asmua sinplia da: umien futbolakiko zaletasuna haunditza eta baloriak erakustia. Jokuen bittartez haurrak futbolian jolastera xaxatu nahi dittugu. Helburuak? Egindakuakin gozatziaz gain, taldekidien arteko laguntasuna lantzia eta talde izaeria indartzia, bestiak beste.

Zeini zuzenduta dago?

8-10 urte arteko neska-mutilei. Oin arte, eskola kirola jasotze zebe bakarrik. Aurten taldea sortzen bada, datorren urtian Alebinetan jokatuko dabe!

Zela egin bihar da izen-erotia?

Zerrendak eskolan banatu ditugu eta irakasliak arduratuko



dira honek betetziaz. Gutxieneko kuota bat ordaindu eta izena emoten dabenak Sorako erropen ekipamendua jasoko dabe.

Futbol taldiak harrobixa izatia garrantzitsua da?

Bai oso. Oinarrizko sentoduz, futbolian jolas-teko teknika maila altuago bat lortuko dogu. Soziazki, kirola praktikatuz lagun artian gozatu eta jokalari artian hobeto ezagutzen lagunduko dau Futbol Eskolia. Horrek danak herriko harremantetan eragina izango dau.

Animatu umiak eskolan izena ematera...

Barixakuetan 17:30ean entrenatuko dogu eta zapatuetan partidak jokatuko eta lagun giruan oso ondo pasatuko dogu. Urtian behin Zubietara juango gara, Erreala ikustera eta beste Futbol Eskola batzuekin jolastera.

“Futbol Eskolia 8-10 urte arteko neska-mutientzat da.”

HNOS. BENITO ANAIAK



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47

Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea

T. 943 75 16 46

Zenbat etxe huts daude herrian?

Datu hori da, datozen egunotan, udalak kontratatutako bi inkestazailek etxez etxe egiaztatuko dutena. Herrian dagoen etxebizitza premia aztertzeaz gain, Soraluzen dagoen etxebizitza eskaria ere ikertuko dute, eskatzaileen



ezaugarriak jasotzearekin batera. Bestalde Aztiker enpresak, era anonimoan, 12 minutuko 550 elkarrietzeta egingo ditu telefonoz, zoriz aukeratuak izango diren etxeetan. Udalak 35.000 euroko dirulaguntza jaso du azterketa hau egiteko.

Etxebizitza arazoari irtenbidea topatzen

Etxebizitzaren gaiak herrian duen garrantzia eta zailtasunak bultzatuta abiatu du udalak aipatutako inkesta. Modu horretan, udalerrian etxebizitzaren gaiaren kudeaketa berria aurreikustenda, etxez-eteke inkestako emaitzak ikertu eta ondorioak atera ostean. Egitasmoaren aurkezpen ofiziala aste batzuk barru egingo dute, herritarrei egitasmoaren inguruko xehetasun gehiago emateko.

Alkateak inkestak egiteko herritarren parte hartzea beharrezkoa dela azaldu du eta dei egin nahi die ahal duten neurrian inkestatzaileekin kolaboratzeko.

UEUn ikastaroak egiteko aukera

Udako Euskal Unibertsitateak zortzi ikastaro eskainiko ditu udazkenean Eibarko Markeskua Jauregian. Soraluzeko Udalak diruz laguntzen ditu ikastaroetan matrikulatzen diren soraluzetarrak eta informazio gehiago jasotzeko 943 75 30 43 telefonora deitu. Ikastaro guztiak: www.ueu.org webgunean. Ikastaroetan parte hartzeko 943 82 14 26 telefonora deitu daiteke.



Emakumeen topagunea urriaren 18an

Yoana Azpitartek jakinarazi duenez, Soraluzeko Emakumeen Topagunea urriaren 18an bilduko da, astelehena, arratsaldeko 19:30ean udaletxeko lehenengo solairuan. Topagunea egiteko lehenengo deialdia urriaren 7rako egin zuen udaleko berdintasun teknikariak, baina herriko emakume batzuk hala eskatuta, egunez aldatzea erabaki dute.



Martxan daude igogailu berriak

Pasa den barixakutik erabilgarri daude Gabolats eta Estaziño Kaleko igogailu berriak. Gabolats kaleko igogailuari baina, Etxaburueta kaleraino igotzeko arrapala egitea falta zaio, besteak beste Itxaropena Elkartera joateko irisgarritasuna hobetzeko. Lan hauek laster hasiko direla azaldu du alkateak.



Lana internet bidez topatzeko ikastaroa

Urriaren 18tik 22ra bitartean lana internet bidez topatzeko ikastaroa antolatu dute Debegesak eta Enplegurako Zerbitzu Publikoak (INEM). Ikastaroa Soraluzeko KZgunean izango da (Baltegieta 18), astelehenetik barixakura goizez, 2 orduko saioetan. Izena emateko deitu zenbaki honetara: 661 291 878.



MENDIZABAL okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99
SORALUZE



Atzegi Elkarteak boluntario bila

Adimen urritasuna duten pertsonen familien Gipuzkoako elkarteak (Atzegi) aisialdiko ekintzen bidez pertsonekin erlazio positiboa bultzatzeko boluntarioak behar ditu. Gaur egun 13 Txolarte daude Gipuzkoan banatuta. Eibarko txolarteak, Txomo Etxean dago. Bertan, 16 urtetik gorako Adimen Urritasuna duten pertsonen hartzen dute parte. Zapatu arratsaldero elkartzen dira aisialdiko ekintzak burutzeko: afariak, poteoa, eskulanak... Boluntario izateko ez da ikasketa zehatzik behar, bai ordea esperientzia berriak probatzeko gogo eta ilusio mordoa. Izena eman nahi duenak, 943 42 39 42 (Itsaso) telefonora deitu dezala, edo arantz@atzegi.org helbidera mezu bat bidali.

**1959an jaiotakoek bazkaria egingo dute**

Datorren urriaren 23an Txurrukan bazkalduko dute 1959an jaiotako plautxiarrek. Izena emateko jabetxera deitu behar da urriaren 17a baino lehen.

Debabarreneneko esperientzia eskola zabalik

Eskola hau bailarako 50 urtetik gorako pertsonen zuzendua dago eta gizarte harremanak eta komunikaziorako trebetasunak, osasun fisiko eta mentalaren zainketa eta hobetzea, erlaxazio teknikak, informatika eta literatura lantzen dira bertan besteak beste. Eskolak urriaren 26tik 2011ko ekainera bitartean izango dira, astean hiru egunez (martitzen, eguazten eta eguenetan), goizeko 9.30etatik 12.30era Eibarren. Informazio gehiago 943 753043 edo 695 788 936 telefonoetan.

Mendiola industrialderako biribilgunea aho batez onartua

Mendiola Industrialdeko sarrera hobetzeko aukera aho batez onartu zen joan zen eguazteneko Udalbatzarrean. Egitasmo hau Unamuno enpresa parean beste biribilgune bat egitean datza. Errotanda honek bi irteera izango ditu, bat Unamuno enpresarantz eta bestea Mendiola industrialderantz.

Mozioak ez ziren onartu

Errepresioaren aurkako mozioa aurkeztu zuten Jose Luis Arizaga, Larraitz Lakuesta eta Aitor Prietok. Aldeko 5 (Udal Gobernu Taldea) eta kontrako 6 botorekin (EAJ, PSE, PP) ez zen onartu. EAJ-k bere aldetik, mozio alternatibo bat aurkeztu zuen. Aldazabalen esanetan "bortizkeriak beti bortizkeria ekartzen du. Gu beti egongo gara bakearen eta bakegintzaren alde". Bozkatzerakoan berdinketa egon zen, aldeko 3 boto (EAJ), kontrako

beste 3 (PSE-EE, PP) eta 5 abstentziorekin (Udal Gobernu Taldea). Bigarrenez ere berdinduta, alkatua kalitatezko botoaz baliatu eta abstentzioan geratu zen EAJk aurkeztutako mozioa.

Eskari eta galderen tartean, Larraitz Lakuesta zinegotziak, azken asteetan Espainiako Poliziak atxilotutako gazteek salatutako torturen testigantzak irakurri nahi izan zituen. Lehen hitzak esaterako, PSE-EEko eta PPko zinegotziek bere aulkia utzi eta saio aretoa laga zuten. Jarrera horrek Udalbatzarrera joandako herritar batzuk hasarrerazi zituen eta oihuak bota zituzten zinegotzien aurka. Giroa apur bat lasaitu zenean Lakuestak testigantzak irakurri zituen. Bukatzeko, urriaren 30ean Torturaren Aurkako Nazioarteko Egunean manifestazio nazionalera joateko deia egin zuten.



Argazkian: Azken atxilotetak eta atxilotuei eman dieten tratua salatu zuten hainbat herritarrek.

Javier Alonso Zelaia
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA
 K.Z. 20.000.434
 Jon Azkorbebeitia Txurruka
 K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

KM
Desing
 Diseinua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5
 Tlf.: 943 76 99 85
 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
 Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

XXV. Ipuin lehiaketa 2010eko sarituak

"Behin batean txinatar ume bihurri eta argi bat jaio zen, bere aitak meategietan egiten zuen lan eta ama merkataria zen. Handitu zenean konturatu zen meatzaria izan nahi zuela eta bere amari eskatu Zion baimena..."

Markel Gil

"Meatzaria izan nahi dut"

"Txarrena da puzkar bat botatzen duzun bakoitzean ozono gehiago gaitzen dela baina zuk bakarrik zaindu egin nahi duzu. Azkenean hil egingo da, ez da zure errua, gizakiona baizik. Ez dute birziklatzen, ezta mendiak errespetatzen, nik videokamara bat dut hemen gertatzen den guztia grabatzeko..."


Leire Peñalba

"Gure planeta baliotsua"

"Han geundela, izarrek bere sekretua kontatu zidan. Izar herratu hura ikusitakoan desio bat eskatu zuela esan zidan. Desio hori bere lagun minaren nahia betetzea zen eta kasu honetan izarren lagun mina ni nintzen. Biak itsasora begiratu genuen eta hantxe gelditu ginen isil-isilik, itsasoraren kantua gozatzen."

Nerea Nieves

"Itsasoaren
kanta"



Zulotik
begira

Paignton

Ekainaren 30ean abiatu ginen Loiuko aireportura, eta bertatik Ingalaterrako herrialde batera, Paignton izenekora. Denok oso urduri geunden, hilabete bat etxetik kanpo igaro behar genuelako, baina oso pozik ere bai, lagun berriak ezagutuko genituelako. Egun osoa igaro genuen bidaiatzen: lehenengo hegazkinean eta ondoren autobusean sei ordu luze. Paigntonera gaueko hamaiketan heldu ginen, denok oso nekatuta. Bertan bakoitzak bere familia ezagutu eta beraiekin etxera joan ginen.

Paigntonon egun guztiak oso antzekoak izaten ziren. Astelehenetik ostiralera, berdinak: goizetan ekintza ezberdinak; batzuetan, herrialde berriak ezagutzera eramaten gintuzten; besteetan, jolasak edo erosketak egitera. Arratsaldetan, eskola izaten genuen. 3 ordu izaten ziren, ordu erdi pasa ondoren, hamabost minutuko atsedaldia izaten genuen edozer gauza egiteko: lagunekin egoteko, ordenagailuetan ibiltzeko, zerbait jateko... Klaseak bukatu ondoren, bakoitza bere etxera joaten ginen, afaltzera, guretzat nahiko goiz... arratsaldeko seietan. Afal ostean, autobusa hartu eta berriro herrira abiatzen ginen lagunekin egotera, gaueko hamarrak hamar erdiak arte. Larunbat eta igandeak desberdinak ziren. Larunbatetan egun osoa kanpoan igarotzen genuen,

egun osoko ekintzak izaten baikenituen; igandeetan, berriz, egun librea edukitzen genuen. Egun osoa kalean igarotzen genuen, lagunekin bazkaldu eta afaldu, hondartzara joan, zinemara joan, futboleko jolastu... egunik onenetarikoa zen. Azkeneko egunak oso gaizki pasatu genituen guztiok, bagenekielako faltan botako genituela bertako familia, herria, irakasleak, baina gehien bat lagunak, lagun onak egin baikenituen.

Izugarria izan zen gure Ingalaterrarako bidaiak, primeran pasatu genuen eta laster bueltatzea espero dugu!

Sara, Aitor eta Egoitz.



Drogheda

Soraluzeko beste lau ikasle Droghedan eta Dubliñen egon ginen bakoitza familia ezberdin batean. Gure egunerokoa hau zen: goizetan eskolara joaten ginen ingelesa ikastera; ondoren, eguerdian, "lunch pack"-a jan eta gero, ekintza ezberdinak egiten genituen, adibidez, bolera joan, kirola egin, akuaparkera joan, breakdance ikasi... Seiak aldera afaldu egiten genuen, ondoren kalera jaisten ginen beste lagun euskaldun batzuekin.

Bi aldiz joan ginen Dublin ikustera, Irlandako hiriburua, baina dendetan ibili ginen eta ez genuen hiriburua asko ikusi. Hartu gintuzten familiekin oso gustura egon ginen, ez genuen inolako arazorik izan, janaria ere gure gustukoa izan zen. Oso esperientzia polita izan da eta datorren urtean ere espero dugu horrelako bekaren bat tokatzea. Ikasle guztiak animatzen ditugu horrelako bekak eskatzera, ingelesa ikas-



ten delako, baina baita jende ezberdin asko ezagutzen delako eta leku eta kultura ezberdinak ere.

See you later, IRELAND!!!


Sonia, Borja eta Ander.

IV. Udako argazki lehiaketa

Oihane Alberdi



Sabin Perez



Aitziber Gantxegi



Brasilgo Diamantina hiriko kaleak.

Madrileko kaleak eguzkiak erreta.

URABAZLEA Enara Agirre

Goretti Goiogana



Arantza Garai



Benidormen oporretan maskota eta guzti.



Belizeko kostan, kariben.

Veneziako gondolak zuri-beltzean betikotuta.

Leire Alvarez



Eulogio Mancebo



Donostiako kaian txalupa koloretsuak.

Juan Fernandez



Oliviescako lasaitasuna


Motrilgo hondartza iluntzean.

Aitor Zugazaga

Ana Sebal



Venezian, iluntzen ari zela suaren itxura hartu zuen zeruak.



Voloveko (Togo) umeak errekatik etxera ura ekartzen.



Menorca irla hegazkinetik.

Lorea de Castro



Javier Gabilondo



Siracusako (Italia) itsasoan belauntzia.

Dedri Lete



Ilunabarra Tanzaniako Serengeti Parke Nazionalean.




inlandian.




Pontevedrako ibaian txangoa.

Alberto Berraondo



Veneziako San Marcos plaza urak hartzen duenean.



ESKOLAN ERE MUSIKAZ GOZATZEN

Urriaren 6an Xabier Lizaso pianojolearen bisita izan genuen. Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailako ikasleok Xabierrek prestatutako ikustaldian parte

hartzeko aukeraz gozatu genuen. Oso joku dibertigarriak proposatu zizkigun eta gero hirugarren mailakoek elkarrizketa bat egin genion.

Xabier Lizaso, pianojolea

Zergatik etorri zara eskolara?

Kutxa fundaziotik bidali nautelako.

Zenbat urterekin hasi zinen pianoa jotzen?

8 urte nituela hasi nintzen solfeo ikasten eta pianoa jotzen.

Non ikasi duzu instrumentua jotzen?

Donostian , Varsovian eta Londreseko kontserbatorioetan.

Noiz eta non eman zenuen zure lehendabiziko kontzertua ?

12 urterekin, Orion.

Zenbat eskoletan ibili zara ?

Uff! Auskalo, 1000tik gora!


Non erosi duzu pianoa?

Donostian.

Nola sartzen duzu pianoa eskoletara?.

Pianoak 200 kg. inguru dituenek karrotxo bat behar izaten dut eskoletara sartzeko.





Denbora asko pasatzen dozu telebista aurrian?

Zein da zure marrazki bizidun gogokuena?

Lore Murgizu, 6 urte

Barixaku gabetan ikusten dot telebista eta zigortuta naguanian hori bez. Neri Bob Esponja da gehixen gustatzen jatan marrazki biziduna, oso barregarrixa dalako. Pirritx eta Porrotx be oso dibertigarriak dira.

Lander Zubizarreta, 5 urte

Telebista parian naguanian gurasueri tranpa egitten dotset. Eurak sofatik altxatzen diranian, nik mandua hartu eta marrazki bizidunak jartzen dittut. Gero, badatozela entzuten dotenian, bizkor-bizkor kataia aldatzen dot. Nik Code Golioco ikusten dot, munstruak agertzen diralako.

Gurasuen baimenakin egunero ikusten dot telebista eta Bob Esponjan tontokeriak ikustia da gehixen gustatzen jatana. Nahixago dot telebista ikusi lagunekin urtetzia baino! Ordenagailua be badaukat eta marrazkixak ikusten dittut bertan.

Igor Bedaio, 6 urte

Nik telebista arratsalde eta gabetan ikusten dot eta Printzesak eta Bob Esponja dira nere gogokuenak. Bob Esponjak lerdokeri mordua egitten dittu eta modan dago. Baina nahixago lagunekin kalia egotia.

Naroa Cobo, 6 urte

DENBORAPASA

3

Osatu esaldiak

Hiztegia ikasteko ariketa dibertigarria asmatu du irakasleak. **Marrazkiari dagokion hitza idatzi eta esaldia osatu behar da.**

Gure herriko errekan asko dago.
Nire amak prestatu dit merienda jan dezadan.
Etxeko erori zait praktetatik eta galdu egin dut.

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Telebista analogikoak lekua egin dio Lurreko Telebista Digitalari. Sistema digitalaren bitartez telebista kate berri mordoia iritsi dira gure etxeetara. Egoera berri honek telebista ikusteko ohiturak aldatu ote ditu?

LTDaren etorrerik telebista ikusteko ohitturak aldatu dittuala uste dozu?

ARRATE IPARRAGIRRE


Jantokiko zaintzailia



LTDa ipintziakin bakarrik kriston komerixak euki dittut. Baina azkenian betiko kataiak ikusten dittut, ETB, Antena 3 eta Tele 5. Zaborra baino ez dago. Neri pelikula onak ikustia gustatzen jata.

XABIER BIDASORO

Instalatzailia



Nik aldatu dittut telebista ikusteko ohitturak. Oin zapping gehixago egitten dot. Katai berrixak eta telesailak ikusten dittut, Neox eta holakuak. Nik uste hobera egin dogula LTDkin.

NAGORE GONZALEZ


Estetizista eta ileapaintzailia



Oin katai gehixago dare eta hobeto dago. Nik gabian ikusten dot. Paramount-eko telesailak gustatzen jataz. Telebistan ton-tokeri larregi dago.

ERIK ALVAREZ

Tornerua



Betiko kataiak ikusten dittut etxian naguanian. Baina ez jata telebista gustatzen. Txutxumutxu larregi dago eta pelikula onik ez dabe emoten. Dana dala, irudi kalitatian eta kanalen ugaritzian irabazi egin dogu.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.
Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



**GAZTELUPE
taberna**
tel: 943 75 20 81



**TXURRUKA
JATETXEA**

www.txurruka.com
943 75 15 81



AEKn izena emateko azken egunak

Soraluzeko AEK Euskaltegia izena emateko azken egunetan dago. Guztira 32 lagunek dihardute euskara ikasten Soraluzen. Oraingoz hiru talde bete dira, baina laugarren taldean lekua dago oraindik. Talde honek hasiera mailako urratsa lantzen dihardu eta astelehenetik eguenera egunero dira klaseak, 19:00etatik 21:00etara. Taldea osatzeko premia dago eta izena eman nahi duenak 943 751434 telefonora deitu dezake.

Urriko Kultur Agenda**URRIAREN 14tik 31ra****ERAKUSKETA:****Julio Mendikuteran**

argazkigintza sortzailea.

Astegunetan 19-20:30 Kiroldegian
Asteburuan 12-13:30 Kiroldegian

Ant: Kontrargi Kolektiboa

URRIAREN 15etik 31ra**ERAKUSKETA:****Laiá Bedós**

Bonaterren margolanak.

Inaugurazioa, urriak 15, arratsaldeko 7etan, Oreka Art aretoan.

Astegunetan 18-20:30, asteburuan 12-14, Oreka Art Aretoan.

Ant: Oreka Art Aretoa

URRIAK 20, eguaztena**HITZALDIA:**

"Convivencia y resolución de conflictos entre padres/madres e hijo/as",

Carmen Santamaria-ren eskutik.

Arratsaldeko 6etan, Herriko Antzokian.

Ant: Atxolin Guraso Elkarte

URRIAK 23, zapatua**KONTZERTUA:****DEDIEGO BROTHERS**

Jazza Zuzenean

Ant: Gaztelupeko hotsak

AZAROAREN 5etik 26ra**ESKULAN TAILERRA:**

Astelehen, eguazten eta egunetan.

Izen-ematea: urriaren 25etik 27ra, 11etatik 13etara.

Ant: Udaleko Gizarte Ongizate Batzordea.

Soraluzetarrak IV. Danbaka musika lehiaketan

Goiena multimedia enpresak eta Elgetako Espaloia Kafe Antzokiak urtero antolatzen duten Danbaka musika lehiaketa hastear dago. Dagoeneko, lehiaketa parte hartuko duten hogeitau taldeak aukeratu dituzte, tartean Desprezio talde soraluzetarra. Danbaka lehiaketa, guztira, bost kontzertu ezberdin antolatu dira eta kontzertu bakoitzean lau talde arituko dira. Epaimahaiak kontzertu egun bakoitzeko talde irabazlea aukeratu du, eta irabazleak finalerdietara pasatuko dira. Azkenik finala lehiatuko da eta musika talde irabazleak diskoa grabatuko du, Gaztelupeko Hotsak diskografikaren bitartez.

Desprezio kontzertuen lehen taldean

Aipatu moduan, lehiaketaren IV. edizio honetan Desprezio talde soraluzetarrak hartuko du parte. Taldekideak hiru dira (Izu, Porrro eta Manzana) eta 2003. urtean dihardute punk-rocka lantzen, euskaraz eta gaztelaniaz. Urriaren 22an joko dute Espaloia Kafe Antzokian (Elgetan).

Sarrerak

Kontzertuetarako sarrerak Espaloia Antzokiko leihatilan jarriko dira salgai 5 € (Gaztekutxarekin 3 €). Sei kontzertuetarako bonoak erosteko aukera ere izango da, finala barne. Bonoak 22 euro balio ditu (Gaztekutxarekin 12 €).


Urriak 22, barixakua 22:30ean

Black River (Oñati). Metal core melodikoa.

Desprezio (Soraluze – Eskoriatza – Deba). Punk-rocka.

Lord Witch (Bergara). Power metal eta heavy metal melodikoa.

La-Tox (Bergara). Elektronikoa.



Iturria: Danbaka

Enara Agirrek irabazi du Udako Argazki Lehiaketa

Guztira 15 parte hartzaile izan dira Pila-pilean aldizkariak antolatu duen IV. argazki lehiaketan eta Kontrargikoek Enara Agirreraren argazkia saritu dute, argazkiaren originaltasuna eta kalitatea azpimarratuz.

Enarak nekazaletxe batean asteburupasa bat irabazi du. Zorionak berari eta eskerrik asko parte hartzaile guztiei!



Urriaren 23an zelai berriaren inaugurazioa

Urriaren 23an inauguratuko da Ezoziko futbol zelai berria. Estreinako ekitaldia eguerdiko 13:00ean hasiko da eta ekitaldira, Aldundiko eta Federazioko ordezkariak, Antzuolako alkatea eta bertako futbol taldeko kideak gonbidatu dituzte. Jarraian ordezkariak bazkaltzera joango dira Txurruka jatetxera.



Lehenengo futbol partidak arratsaldean

16:30ak aldera, Soran 17 urte daramatzan Ibai Rasconi oroigarri bat emango diote eta berarekin batera Udaleko ordezkariak ere eskerrona adieraziko die Zuzendaritzak. Arratsaldeko 17:00etan Sorako Erregional mailako bi taldeek lagunarteko partida jokatuko dute. 18:30ean berriz, jubencil taldeak Zestoako taldearen kontra jokatu du. Arduradunek herritar denak ekitaldira gonbidatu nahi dituzte.

Ukaldi Judo Taldean izena emateko aukera



Bost urtetik goragoko haurrek Judo Taldean izena emateko aukera dute. Klaseak martitzen eta eguenetan izaten dira, arratsaldeko 18:30etik 19:30era bitartean. Izena eman nahi duenak, 943 751758 edo 620 149294 telefonoetara deitu beharko du edo Ezoziko lokaletan, beheko solairuan dagoen judoko lokalera bertara jo. Dagoeneko hamar umek eman dute izena aurtengo ikasturterako.

Garciak Urrakira igoeran parte hartuko du

Urriaren 24an XXVIII. Urrakira igoera jokatu da eta pilotu plaentxiarrak bertan parte hartuko du bere Renault 5GT Turboarekin. Ibilbideak 6,7 kilo-

metroko luzera izango du eta froga goizeko 10:00etan hasiko da. Urrakira igoera Euskal eta Gipuzkoako Mendiko Txapelketan puntuatzeko erabiliko da.



EMAITZAK

PELOTA

Gonzalez – Zubieta 14
Xala – Laskurain 22

Mtz de Irujo – Laskurain 22
Xala – Zubieta 19

Mtz de Irujo – Laskurain 7
Titin III. – Barriola 22

Retegi Bi – Laskurain 18
Urrutikoetxea – Ibai Zabala 11

FUTBOLA

Gazteak – Sora (Erreg.) 1 - 3
Aretxabaleta – Sora (Erreg. B.) 1 - 1
Ikasberri – Sora (Jub.) 7 - 0
Sora (Kad.) – Eibartarrak 0 - 3
Sora (Erreg.) – Bergara B 4 - 0
Sora (Erreg. B.) – Eibartarrak 0 - 1
Segura Goierrri – Sora (Jub.) 6 - 1
Elgoibar B – Sora (Kad.) 4 - 1

AGENDA

FUTBOLA

Urriak 16 zapatua,
17:30ean Unben
Eibartarrak – Sora (Erreg.)

Urriak 16 zapatua,
15:30ean Unben
Gazteak – Sora (Erreg. B.)

Urriak 17 domeka,
11:30ean Estalan
Sora (Jub.) – Ilintxa

Urriak 16 zapatua,
11:00etan Estalan
Sora (Kad.) – Urki

OHARRA

Marraskilo Tour-eko kamisetak salgai

Mendi taldekoek jakinarazi dute 2010. urteko Marraskilo Tour-eko mendiko kamisetak salgai daudela, 5 €. Tailak mugatuak dira, emakumeetan L taila da geratzen dena eta gizonezkoetan M eta L. Kamisetak eguenetan egongo dira salgai, arratsaldeko 19:30etik 20:30era Pii-pileaneko egoitzan.

* 228. aleko fotonotizia oker zegoen. Argazkian Marraskilo Tour-eko partaideak agertzen ziren, ez Barçako jarraitzaileak. Barkatu eragozpenak.

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Ane Orbea

BELGIKAKO ORBEATARREN BISITA

1 956. urteko argazkixa da. Orbea familixia ageri da. Gerra sasoiari, orbeatar batzuk Belgikara ihes egin bihar izan zeben. Gerora uda partian urtero etortzen ziran Plaentxiara familixiari bisitatxo bat egittera. Hain zuzen be, udako bisita baten etaratako argazkixa da hau.

Argazkixan:

- | | |
|--------------------------------------|-------------------------------|
| 1- Jose Garin | 13- Amaia Iraola |
| 2- Luis Mari Idigoras | 14- Jose Maria Larrañaga |
| 3- Maritxu Ariznabarreta "Espilla" † | 15- Juana Maria Arizbabarreta |
| 4- Antoni Orbea † | 16- Anjel Ariznabarreta |
| 5- Francis Orbea | 17- Jesus Orbea |
| 6- Cristian | 18- Begoña Ariznabarreta |
| 7- Jeanine | 19- Hilario Orbea † |
| 8- Jose Maria Uribesalgo † | 20- Pili Larrañaga |
| 9- Asuntxi Uribesalgo | 21- Ezosi Larrañaga |
| 10- Rosita Orbea † | 22- Raquel Iraola |
| 11- Felisa Idigoras | 23- Amaia Iraola |
| 12- Jose Luis Ariznabarreta | |



MARIA ANJELES ELIZBURU LARREATEGI

I. URTEURRENA
2009KO URRIAREN 17AN HIL ZEN,
56 URTE ZITUELA.

"Eskerrik asko zinen bezalakoa izategatik, beti egongo zara gure bihotzean. Maite zaitugu".

Etxekoen partez.

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



www.danbaka.com

DANBAKA LEHIAKETA HASTERA DOA

Urriak 22

Black River (Oñati). Metal core melodikoa.

Desprezio (Eskoriatza-Deba-Soraluze). Punk-rocka.

Lord Witch (Bergara). Power metal eta heavy metal melodikoa.

L&Tox (Bergara). Elektronikoa.

Azaroak 5

El Trio Calavera (Oñati). Rumba

Rock Privado (Oñati-Donostia). Pop-rocka.

Front Malabar (Arrasate). Rock poverra.

Ynotek (Abadiño). Rocka.

Azaroak 19

Doctors Klub (Abadiño-Durango). Rocka.

Rombos Negros (Bergara). Punk-rocka.

Karpovian Project (Mutriku). Rock-metal progresiboa.

Ezi (Oñati). Rocka.

Azaroak 26

Xarna (Ondarru). Rocka.

Txusters (Eibar). Rock and rolla.

Seafold (Eibar). Folk, popa eta rocka.

Scam (Aretxabaleta). Rocka.

Abenduak 17

Dark Code (Bergara). Death metal melodikoa.

Kubers (Soraluze). Pop-rocka.

Asfiksia (Oñati). Heavy-rocka.

Industria Dolor (Arrasate). Musika industrialia.

Sarrerak: 5 € (Gazte Kutxarekin 3 €). Bonoak sei kontzertuetarako 22 € (Gazte Kutxarekin 12 €).

Erosteko moduak: Goienako egoitzetan, 943 25 05 05 telefonoan edo Elgetako Espaloia Kafe Antzokian.

Soraluzek

Bai




UDALBILTZARI
EUSKAL HERRIARI !



Elkarretaratzea herrian

Urriak 24, domeka
Plaza Barrixan
Eguerdiko 13:00ean

SORALUZKO
BABES TALDEA:



eta hainbat plentxiar